



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública



DONOSTIAK EUTSI EGIN DIE AIREAREN, URAREN ETA BERDEGUNEEN KALITATE-MAILA ONEI

Donostiak klimarekin eta jasangarritasunarekin lotutako balioak hobetzen jarraitzen du, Cristina Enea Fundazioaren Jasangarritasunaren eta Klimaren Behatokiaren txostenaren arabera. Txosten horretan, 50 adierazle eta datu esanguratsu jaso dira, eta, horien bidez, azken urteetako bilakaera aztertu da, klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta egokitzapenaren ikuspegitik.

Marisol Garmendia Ekologiako zinegotziak azpimarratu duenez, "Donostiak adierazle ezin hobeak izaten jarraitzen du arlo hauetan: uraren eta airearen kalitatea, hiriko berdeguneen azalera, hondakinen kudeaketa eta murrizketa, atmosferara egiten diren isurketen murrizketa eta ingurumena hobetzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko bidean jarraitzera gonbidatzen gaituzten beste parametro batzuk, klima-aldaketaren ebidentzia gero eta nabariagoa den honetan."

Hiria hornitzeko erabiltzen den **uraren kalitateak** ezin hobeak izaten jarraitzen du: analisisien %99,86 gogobetegarriak dira. Bestalde, Urumeako uraren kalitatearen analisisiek erakusten dutenez, ibai-ahotik gertuen dauden eremuetan ingurumen-helburuak gero eta beteago ditugu.

Hala ere, ibaiaren erdialdean, Loiolako eta Santa Katalina zubien artean, egindako analisisiek erakusten dutenez, hango uraren kalitate-indizeek jaisten jarraitzen dute.

Uraren gutzizko kontsumoa 204 litrokoa da, pertsonako eta eguneko, eta 129 litrokoa, pertsona eta eguneko, etxe-mailan.

Hiriko airearen kalitatea neurketa-estazioen bidez aztertzen da. Airearen kalitatea "oso ona" edo "ona" izan duten egunak hauek izan dira, ehunekoetan: %93, Puioko estazioan; %92, Tolosa hiribideko estazioan; %91, Añorgan; %87, Zubietan, eta %86, Ategorrietako eta Easoko estazioetan.

Natura 2000 Sareari esker udalerrriak duen azalera babestua %4 da. Udalerrriko **azalera babestu osoa** 1.678,05 hektareakoa da, hau da, azalera osoaren %27,53.

Berdegunek urbanizatutako azaleraren %20,3 hartzen dute, hau da, 21,21 m² biztanleko.

2022ko Zarataren Azken Mapa Estrategikoak erakusten du Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gomendatutako **zarata-mailak** baino handiagoak jasaten dituzten biztanleak %31 direla.

ENERGIA

Elektrizitatearen kontsumoa apur bat jaitsi da (%2), eta urteko batez besteko kontsumoa 3.439 kWh izan da biztanleko, 2020an erregistratutako kontsumoa baino txikiagoa, pandemiak murrizketa handiak eragin bazituen ere. Gas-kontsumoa %19 jaitsi da, hau da, biztanleko 3.227 kWh izan da, urtean.

Iturri berriztagarrietako energiak 57.533.997 kWh-ko ekoizpena ekarri du 2022an, hau da, 305 kWh/biztanleko; bestela esan, %1eko jaitsiera izan da, 2021. urtearekin alderatuta.

2022ra arte, 64.292 higiezinek lortu dute ziurtagiri energetikoa. Horietatik, %7k soilik lortu du A, B edo C kalifikazioa (kategoriarik eraginkorrenak).

HONDAKINAK

2022an, %1,4 jaitsi da sortutako hondakin-kopurua, hau da, urtean, 446kg hondakin sortu dira biztanleko. Behera egin du hondakinen gaikako bilketa-tasak: %41,10 .

Biztanle bakoitzeko, 183 kilo hondakin bildu dira gaika, hau da, aurreko urteetan baino gutxiago (189 kg baino gehiago bildu dira 2019tik), eta %3,4 jaitsi da



balorizatutako hondakinen bolumena: 263 kg/biztanleko.

Materia organikoari dagokionez, 31.529 familiak eta hainbat motatako 2.264 establezimenduk parte hartzen dute hondakin organikoak edukiontzi espezifikoek bidez biltzeko sisteman. Bildutako materia organikoa 5.111.570 kg-ra iritsi da; bide publikoan dauden eta familiek erabiltzen dituzten edukiontzien bidez hondakin organiko gutxiago bildu da, 2021ean baino %0,5 gutxiago, eta ekoizle handi batzuen bilketa-kopurua, berriz, handitu egin da. Gainera, 796 etxek banakako konpostagailua dute, eta 92 familiek parte hartzen dute hiriko 8 auzotan gaitutako komunitateko konpostaje-programan.

ISURKETAK

2020an, udalerriko **berotegi-efektuko isurketak** inoiz baino gutxiago izan dira, 2007. urteaz geroztik: %43 jaitsi dira eremu guztietan (bizitegiak, zerbitzuak, garraioa eta industria, hondakinak, eta nekazaritza eta abeltzaintza). Mugikortasuna da oraindik isurketen arduradun nagusia (%42), eta ibilgailu pribatua, igorle nagusia.

Guztira, 4,56 tona CO₂ baliokide isuri dira pertsona bakoitzeko, 3,1 industriarik gabekoak; EAEn, aldiz, BEGen isurketak 7,47 t CO₂ dira biztanleko, eta industriarik gabeko isurketak, 4,31 t CO₂ biztanleko.

JARDUERA EKONOMIKOAK

Hiriko elikatze-sistemari buruzko informazioa ere jasotzen da txostenean. Inbentariatutako balio agrologiko handiko lurak eta ustiategi estrategikoak 327,61 ha dira, hau da, udalerraren %5,4. Ekoizpen-mota horretan 12 enpresa daude inskribatuta, eta 23,8 hektarea laborantza ekologikorako erabiltzen dituzte. Kalkuluen arabera, 2.500 pertsona inguru aritzen dira aisialdiko edo autokontsumoko laborantzako lursailetan, eta biztanleriaren %1,5 inguru dira jarduera horren onuradunak.

KONTSUMOA

Udalak egiten duen material suntsikorraren "erosketa berdearen" tasa handia da oraindik; izan ere, material suntsikorraren aurrekontuaren %80ra iristen da.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública



cristinaenea
FUNDAZIOA

Kontratazio
publikoko 32

baldintza-agiritan sartu dira ingurumen-irizpideak, eta esleitu egin dira.

HIRI-LURZORUA

Hiriko lurzoru urbanizatuak azaleraren %32,23 hartzen badu ere, artifizializatutako azalera udalerraren %43,39 hartzen du; azalera hori bereziki handitu da Zubietan pilatutako garapenengatik.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru identifikatuei dagokienez, udal azaleraren %2,4 dira. 2006tik 2019ra bitartean, 47 kokaleku ikertu dira, 15 hektareako azalera globalarekin.